

AZKEN GER TAERAK eta GOGOETA BATZUK

-Abenduaren 15a

Zuzendaritza Orokorrak langile guztiei dei egin zien, abenduaren 20an 18:00etan Olalde aretoan (Mungia) ospatuko zen bilerara joateko. Bileraren helburua Global 2020 proiektuan "orain arte egindako lanaren berri ematea" zen. 100 langile baino gehiagori egindako **deialdia**, eta berriro ere **astirik gabe** astea antolatzeke edo lana eta familia bateratzeko. Berriro ere, **presaren** ondorioz, agian, deialdiak akats bat zeukan eta beste mezu bat bidali zen zuzentzeko: azkenik, batzarra ikastolan bertan ospatuko zen.

-Abenduaren 16a

Zuzendaritza Orokorrak Global 2020 proiektuan "orain arte egindako lana laburbiltzen duen **dokumentua**" bidali zien **familia guztiei**.

-Abenduaren 20a

Zuzendari orokorrak eta egungo egoeraren analisia egiteko kontratatutako aholkulariek familia guztiei bidalitako **dokumentua aurkeztu** zieten **100 langile** ingururi. Dokumentuaren lehenengo diapositiban ondorengo mezua ageri da:

"Langile asko *erreta*. Jarrera pasiboak nagusi eta portaera oldakorrak ohikoaren gaineratik."

Beste diapositiba ba tean, mehatxu bezala ondorengo aipatzen zen:

"Aldaketen aurrean erresistentzia."

Erreta, **pasiboak** eta **oldakorrak**. Langileek azalpenak eskatu zituzten, ez dutelako euren burua *erreta* ikusten, ezta *pasibo* edo *oldakor* bezala. Halaber, ez dute ulertzen zer aldaketaren aurrean erakutsi duten **erresistentzia**.

Aholkularien eta zuzendari orokorraren hitzetan, langileek egindako inkesten erantzunetatik heldu dira ondorio horie tara, eta inkesten zehaztasun zientifikoa azpimarratu zuten.

Inkestetan emandako erantzunen **banakapena erakusteko eskatu** zuten langileek (ikasleen eta gurasoen inkestetan egin zen bezala), aldaketen aurrean **erresistentzia** erakusten dutela edo **oldakorrak** direla, besteak beste, nondik ondorioztatu den jakin ahal izateko. Zuzendari orokorrak eta aholkulariek, baina, ez zuten banakapenik erakutsi ezta azalpenik eman ere. Bileraren ostean, langile batzuek aholkulariei eta zuzendariari banakapena eskatu zieten idatziz, eta oraindik ez dute erantzunik jaso.

Inkestek eta erantzunek "**interpretazio ezberdinak**" sor ditzaketeela onartu zuten aholkulariek; nolabait, beraz, aurretik azpimarratutako zehaztasun zientifikoko hori zalantzan jarri zuten.

Inkesten balorazioak egiterakoan ikastolaren egungo **egoera** ez zutela kontuan hartu onartu zuten aholkulariek, langileek ber en inkestetan egungo egoera aipatzen zuten arren.

Langilearen irudi publikoari kaltea eginda zegoen arren (dokumentua familia guztiei bidali

baitzieten), langileek inkesten balorazioarekin bat ez zetozeela azpimarratu zuten eta balorazioen **zuzenketa** egitea eskatu zieten aholkulariei eta zuzendari orokorrari.

Abenduan zehar ospatutako batzarretan **ikasturtean zehar organigraman** burutu nahi diren **aldaketak** azaldu zitzaizkien langile batzuei; zuzendari pedagogikoak eta koordinatzaileak ikasturtearen erdian aldatzeak eragingo lituzkeen **ondorio** negatiboaren inguruan bere iritzia emateko aprobetxatu zuten langileek.

Proiektua **garatzeko epeetan** malgutasunik gabe aritzeak "**arrapaladan**, eta, beraz, gaizki" egitea dakarrela onartu zuten aholkulariek.

-Abenduaren 21a

Zuzendari orokorrak ondorengo mezua bidali zien langile guztiei: "Abenduaren 20an egindako bileran azaldu ziren ohar, iradokizun eta ekarpenak aztertu" ondoren "osteguneko bazkideen asanbladarako, langileen galdetegien erantzunen inguruko **mezua moldatuko da**". Aurrerantzean "**epeak malgut asunez**" tratatuko direla jakinarazi zien, baita ere.

Nork bere buruari egindako galderak:

1.- Aholkulariek azpimarratutako **zehaztasun zientifikoa** izango balute inkestek, zergatik moldatu zituzten?

2.- Guztira 95 langilek bete zituzten inkestak; horien artean **59** langilek beren inkesten kopiak egin zituzten, aholkulariei bidali baino lehen. **Inkesta** horien erantzunak aztertu ondoren ateratzen diren **ondorioak** aholkularienekin alderatuz gero, guztiz **kontrakoak** direla ikusten da, ehuneko altuetan: langileen %80k ikastolak arrakasta izan dezan lan osagarriak (lanpostuan zehaztutakoez aparte) egiten dituela erantzun du, %84k taldeari dagozkion arazoei irtenbidea bilatzen modu aktiboan parte hartzen duela dio, %90 baino gehiagok lanean jokaera aktiboa duela onartu du eta %84 pozik dago egiten duen lanarekin. Zelan da posible aholkulariak langileen erantzunekin bat ez datozen ondorioetara heltzea? Hori al zen langileei erantzunen **banakapenik ez** erakustearren arrazoia?

3.- 59 langile horien beste erantzun batzuk: %81ak ez du ikastolako egitasmo pedagogikoa ezagutzen, %85 ez da egitasmo pedagogikoaren partaide sentitzen, %89k uste du ikastolako arduradunek ez dutela argi ikastolak izan behar duen norabidea, %89k arduradunek ez dutela argi komunikatzen adierazten du, %98k uste du arduradunek ez dakitela hemendik 5 urtera ikastola non egongo den eta %80k dio arduradunek ez dietela beren iritziei arretarik eskaintzen. Erantzun horiek hain **erabatekoak** izanda, ez al zuten aholkularien partetik **inolako aipamenik** merezi?

4.- Langileek aldaketen aurrean erresistentzia erakusten dutela eta oldarkorrak direla egia izan balitz ere, ikastola zuzentzen dutenak ez al dira konturatu, behin lau haizetara zabalduta, langilearen irudiari egiten dioten kalteaz gain **ikastolari** berari egiten dioten **kalteaz**? Horrela geldiarazi nahi dute eurek zuzendaritzan daudenetik ikastola pairatzen ari den **matrikulazioen jaitsiera** kezkarria?

5.- **Gurasoek** ere **inkesta** bat bete zuten, eta inkestaren emaitzak aurkeztu zituzten dokumentuaren **laburpen**ean ondorengo agertzen zen: "**Zerbitzuak (jangela** batez

ere) dira **asebetetze** maila **altuena** lortzen duen alorra”. Egia da alor desberdinen artean (instalakuntzak, hezkuntza, komunikazioa...) zerbitzuen alorrak lor dezakeela asebetetze mailarik altuena. Baina, aldi berean, ukazina da (**banakapena** erakusteak arrisku hori baitu), alor desberdinek dituzten item guztien artean **baloraziorik altuena** (jangelaren balorazioa baino oraindik altuagoa) “orokorrean” alorrean datorren ondorengoa dela: “**Gure seme-alabak ikastolarekin pozik daude**”. Ez al du inkesten emaitzen laburpenean **inolako aipamenik** merezi inkestako baloraziorik altuenak?

6.- **Ikasleek** ere **inkesta** bat bete zuten, eta inkestaren emaitzak aurkeztu zituzten dokumentuan ondorengo laburpena agertzen zen: “**Azpiegitura teknologikoak** eta **etxeko lanak** dira **asebetetze** maila **baxuena** lortzen dituzten elementuak, eta **ikasleen arteko harremanak asebetetze** maila **altuena** lortzen duena”. Oraingoan ere banakapena erakusten da, eta horrek erantzunak aztertu ahal izatea ahalbidetzen du: item guztien arteko bigarren asebetetze mailarik baxuena bezala “**azpiegitura teknologikoak**” itema agertzen da, baina **balorazio baxurik** ez du, hala eta guztiz ere; eta **asebetetze** mailarik **altuenen** artean **bigarrena** “**Arazorik dudanean tutoreak modu egokian laguntzen dit**” agertzen da, laburpenean aipatzen ez den arren. Zer helburu dauka balorazio ona daukan itema asebetetze maila baxuen artean erakusteak? Asebetetze maila baxuenen artean bi item aipatzen badira, zergatik ez da gauza bera egiten, **objektibitatearen** izenean bada ere, asebetetze maila altuenen arteko itemekin?

7.- **Ikasleak** ere batzartu zituzten beren inkesten emaitzen berri emateko. **Deialdia egun batetik bestera** gauzatu zen, eta horrez gain ikasleekin batzartzeko deialdian jarritako ordutegiak ez zituzten bete zuzendari orokorrak eta aholkulariek. Nork ahaztu zuen **ikastetxe** batean gaudela, irakasleek eskolak aldez aurretik planifikatu behar dituztela, azterketa garaian era honetako aldaketek **anabasa** besterik ez dutela sortzen, eta horrek guztiak ikasleen heziketan eragin zuzena duela?

8.- Epeetan **malgutasunik** ez izatearen ondorioz gauzak txarto egiten direla esan zuten langileek, eta aholkulariek halaxe onartu zuten. **Beste inor** ez al zen **konturatu**?

9.- Aholkulariek erakutsitako **ondorioak** eta aholkulariei ordaintzen dietenek duela urte t’erditik hona mantentzen dituztenak guztiz **berdinak** izatea, ez al da susmagarria?

10.- Guztiz beharrezkoa da Kontseilu Errektorea bazkideekin batzartzen den bakoitzean egunen bat lehenago, **korrika eta presaka**, langileekin edo Enpresa Batzordearekin bilduta egon izatea bazkideei horren **berri emateko** helburuarekin?

11.- Gatazkari berari eta gatazkaren arrazoiei erreparatu gabe, posible da proiektua **oinarri sendo** etan eraikitzea?

-Abenduaren 22a

Bazkideen **ez-ohiko asanblada** (informatiboa) ospatu zen Mungiako Olalde aretoan.

Kontseilu Errektoreak asanbladan sartzeko langileen eskakizunari ezezkoa eman zion

abenduaren 21ean.

Asanblada hasi baino lehen bazkide batzuei sarrera ukatu zitzaien: bazkide titularra edo ezkontideetako bat bakarrik sar zitekeen, biak ez. Estatutuek hori diotela argudiatu zuten sarreran zeuden Kontseilu Errektoreko kideek, eta neurri horiekin balizko inpugnazioak ekiditea bilatzen zela. Bazkideek erantzun zuten batzar informatiboa zela, erabakirik ez zela hartuko, eta ondorioz, ez zutela ulertzen zer erabaki inpugna zitekeen; baina sarrera ukatu zitzaien.

Langileak kanpoan elkarretaratu ziren, mobbing-aren kontrako, informazioaren manipulazioaren kontrako eta ikerketaren aldeko goiburuak zeramatzatelarik beren **parkartetan** eta “ez naiz oldarkorra” eta “ez nago erreta” hitzak zituzten **kartelak** eusten zituztelarik.

Asanbladaren, langilea den bazkide batek hitza hartu zuen eta **Lan Ikuskaritzan** jarritako **jazarpen-salaketaren** berri eman zien gainerako bazkideei. Ikastola salaketaren jakinaren gainean zegoela ere adierazi zuen. Zuzendari orokorrak informazio horren berririk ez zuela adierazi zuen.

-Abenduaren 26a

El Correo **egunkariak** argitaratutakoa: “87 trabajadores de la ikastola Larramendi acusan de *acoso laboral* al consejo rector”.

Kontseilu Errektorea batzartu egin zen eta jarraian **komunikatu** bat argitaratu zuen, Hezkuntza Sailarekin eta Ikastolen Elkartearekin harremanetan dagoela jakinaraziz, eta azken urtean “**ikuspegi integratzailez**” **kudeatu** diren ekimenak familiei gogoraraziz:

“Kargutik kendutako kudeatzailearen **birkokapena** ikastolan bertan”.

Kontseilu Errektoreak bere **asmoa** kudeatzailea **kaleratzea** zela ahazten du, eta birkokapena kudeatzaileak bere kontratua ez betetzeagatik jarritako **demandaren** ondorioz izan zela ez du aipatzen.

“Langileen aldetik egon diren **aurrejubilazio** eskaerak, horien ordeztatu diren langile berriak **mahai parekideen** bidez hautatu dira (langileen ordezkapena dutenak)”.

Kontraesankorra da Kontseilu Errektorea aurrejubilazioak burutzeagatik harrotzea, lan-hitzarmenean bertan datorrenean eta tramitazio horietan eta erabaki horietan erakutsi duten **moteltasunagatik** (“kudeaketa desegokiagatik edota estrategia hutsagatik”) kexatu direnean langileak. Harrigarria da, era berean, mahai parekideen bidez kontratazioak egin izanagatik harropuztea, **legez behartuta** dagoenean mahai parekide hori sortzera, eta langileen eskakizunen ondoren, **mahai parakiderik ez** zegoelako, sortu zuenean.

-Abenduaren 27a

El Correo **egunkariak** argitaratutakoa: “La crisis en la ikastola Larramendi siembra la división entre los vecinos de Mungia”.

-Abenduaren 28a

Azken egunetan egunkarietan agertutako ikastolari buruzko berrietan inolako **parte-hartzerik ez** duela izan adierazi du **Guraso Taldeak**.

“**Ere Kezkatutakoak**” taldearen e-maila jaso ondoren El Correo **egunkariak** argitaratutakoa: “Padres de Larramendi avisan de que la crisis in terna pone en peligro o la ikastola”.

“Ere kezkatutakoak” bezala izenpetzen duten bazkide eta gurasoek **Change.org** atarian eskaera bat sortu zuten “babestu ezin duten” “suntsipen asmoaren aurrean”. Eskaerak dakarren izenburua esanguratsua da: “Gure Larramendi Ikastola”. “Langileen idatzien eduki faltan aurrean” “**frogak** eta jazarpen salaketak **zehaz ditzatela**” eskatzen diete langileei, beste eskakizun batzuen artean.

Jagolaritza Batzordeak bazkideen aurrean erakutsitako frogak (13 **dokumentu probatorioak**), langileek blogean argitaratutako frogak (**40 puntu baino gehiago**, besteak beste), Kontseilu Errektoretza utzi zuen **bazkideak** Guraso Taldeak antolatutako **foroan** adierazitako frogak, edota mobbing-aren gainean Europa mailan dagoen adituen artean nagusienera iristeko den eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren lan-jazarpen kontuetarako aholkulari bezala aritzen den **Iñaki Piñuel y Zabala** psikologoak egindako **txosten** guztiz erabatekoa ez omen dira nahikoak “Ere kezkatutakoak” bezala izenpetzen duten bazkide eta gurasoentzat.

Zernahi eginda ere, Kontseilu Errektorea xaxatzen eta babesten duten bazkideak eta gurasoak dira horiek. Langileen mobilizazioak hasi zirenean langileei informazioa exijitzen zietenak dira bazkide eta guraso horiek. Langileek egoerari buruzko informazioa ematen zutenean “salaketa jar ezazue, bada” esaten zuten bazkide eta gurasoak dira horiek. Salaketa jarri dutenean “horrela ez, ez da modu egokia, ez da momentu egokia, ezta lekua ere” esaten duten bazkide eta gurasoak dira horiek. Kontseilu Errektorearen diskurtsoarekin bat ez datorren bazkide batek asanbladan hitza hartzen duenean asanblada uzten edota hizlariari agiraka egiten dioten bazkide eta gurasoak dira horiek. Ikastolaren egoerari buruz LAB Ikastolak-ek idatzitako oharra manipulazteagatik sindikatuaren erantzun sendo bezain beharrezkoa jaso zuten bazkide eta gurasoak dira horiek. Kontseilu Errektorearekin lerrokatu diren bazkide eta gurasoak dira horiek, eta beren posizioa ez dute aldatuko Lan Ikuskaritzak edo epaile baten lan-jazarpena egon dela esan eta epaitzen badu ere.

-Abenduaren 29a

Ikastolen Elkarteko lehendakariak komunikatua argitaratu zuen. Larramendi Ikastolako Kontseilu Errektoreari bere “**babes osoa**” adierazten dio, eta “**ulergaitza**” iruditzen zaio lan jazarpena leporatuta bi langilek, 85 langileren babesarekin, Lan Ikuskaritzara jo izana ikastolen lan hitzarmenean protokolo bat ageri denean kasu hauetarako. El Correo egunkarian argitara eman diren berrien aurrean eta sare sozialetan egin diren iruzkinen aurrean “**harridura**” erakusten du, eta Ikastolari min eta kalte egiten diotela adierazten du. “Dena den, salaketarik baldin badago, kasu horietarako dauden prozedurak martxan jarriko”

direla adierazten du.

Ez da harritzekoa Ikastolen Elkartek ikastola guztien kontseilu errektoreak babestea, edozein izanda ere Kontseilu Errektorea. Komeni da gogoratzea langileek ez dutela Kontseilu Errektorearen izaera (organo bezala) zalantzan jarri, ezta kooperatibaren eredia ere; langileek sala tzen dutena **Kontseilu Errektoreko** kide batzuek ustez egindako **delitua** da.

Ikastolako **Kontseilu Errektorea** aspalditik zegoen Ikastolaren egoera larriaren jakinaren gainean.

Ikastolen Elkartea eta bere **lehendakaria** aspalditik zeuden Ikastolaren egoera larriaren jakinaren gainean.

Larramendiko Ikastolako **gerentea** aspalditik zegoen Ikastolaren egoera larriaren jakinaren gainean.

LABeko eta **ELAko** eskualdeko ordezkari sindikalak aspalditik zeuden Ikastolaren egoera larriaren jakinaren gainean.

Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantza, "Lan-iruzurraren kontrako borrokaren gutunontzia" delakoaren bidez, aspalditik zegoen Ikastolaren egoera larriaren jakinaren gainean.

Eragile horiek guztiek egoera zein den aspalditik dakiten arren, ez dira izan gai protokoloa martxan jartzeko, "**LABetik** hasiera-hasieratik **protokolo** horren **aktibazioa** eskatu" bada ere, sindikatuak argitaratu duen bezala. Beste eragileek hartu duten neurri bakarra Ikastolen Elkarteko lehendakariaren konfiantzazko pertsona **gerente** bezala proposatzea izan da. El Correo egunkariak argitaratutakoaren arabera, gerente hori bera da **salatutako** pertsonetako bat. Beldurtzeko helburuarekin ahotsa igotzen duen eta langileek beren sinadurarekin faltsukeriak onartzea bilatzen duen gerentea, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, Ikastolen Elkarteko lehendakariak esaten duenean "ulergaitza" iruditzen zaiola langileek Lan Ikuskaritzara jo izana ikastolen lan hitzarmenean dagoen **protokoloa** jarraitu beharrean, ustezko jazarpena Kontseilu Errektoreak egin duela gogoraraztea komeni da, eta protokoloaren aplikazio eremua "**ikastoletako langile** bai bertan lan egiten duten azpikontratutako langile guztiei" mugatzen dela; Kontseilu Errektoreari, langileak ez diren neurrian, ezin zaio protokoloa aplikatu, hortaz. "Prozedurari hasiera emanaz", gainera, "Ikerketa Batzorde bat eratuko da sindikatuen ordezkariak izendatutako Bitartekari batez eta ikastolako titularrek izendatutako beste Bitartekari batez osatua"; hau da, ustez **jazarpena egin dutenen bitartekaria**. Ikastolen Elkarteko zuzendariak, iraganean langileen eskubideak defendatzen zituen norbait izaki, ziur ulertzen duela langileek **beste bide batzuk** erabili izana. Baina Ikastolen Elkarteko lehendakariak ulertuko ez balu ere, bere ulertezintasun hori komunikatu publiko baten bitartez zabaltzea ez du ematen egokiena denik, berak aipatutako protokolo horretan ondorengoa aipatzen denean: "Prozedura honek ez du agortzen jazarpena jasan duen pertsonak **bide administratiboak** edota **judizialak** (zibilak edo penalak) jorratzeko bidea, eginbide honetan ikastolaren aldetik laguntza jaso dezakeelarik".

Baina, langileek protokoloaren babesean pausoak emateko aukera izan balute eta aukera horri muzin egitea erabaki izan balute ere, ikastolako **87 langilek jazarpen-salaketa** bati

babesa ematea ez litzateke izan beharko harridura eta ardura sortzeko arrazoia, protokolo bat edo bestea baino?

Ikastolen Elkarteko lehendakariak “salaketarik baldin badago, kasu horietarako dauden prozedurak martxan jarriko” direla adierazten du. Lehendakaria Ikastolaren egoera larriaren jakinaren ganean aspalditik zegoela jakinda, salaketa gabe prozedurarik ez litzatekeela martxan jarriko ondorioztatzen da bere hitzekin. Ondorioz, zer beste bide geratzen zitzaien langileei? Jazarpen susmoen aurr ean **ez ikusiarena egitea**?

-Abenduaren 31

El Correo **egunkariak** argitaratutakoa: “La Asociación de Ikastolas apoya al consejo rector de Larramendi”.

Ikastolen Elkarteko lehendakariak **ez du adierazpenik egin** berri horiek zabaltzeko interesa norik duen galdetzeko edota horrela Ikastolari mina eta kaltea egiten zaiola adierazteko.

-Urtarrilaren 5a

Kontseilu Errektoreak **eten** egin du, email bidez, ia 40 urtetan **aholkularitza zerbitzua** eskaintzen zion enpresarekin ikastolak zeukan harremana.

-Urtarrilaren 15a

Kontseilu Errektoreak Ohiko **Asanblada Orokorren deialdia** argitaratu zuen hedabideetan: otsailaren 2an ospatuko da, Mungiako Olalde Aretoan. Gai ordeneko 7. puntuan Asanblada Orokorrak **Kontseilu Errektoreko kideak berresten** dituen ala ez bozkatuko da.

Kontseilu Errektorearen berrestea helburu duen **botoen bilaketa** hasia da: konfiantza-mozioaren eraginpean egongo diren Kontseiluko kideak badabiltza telefono deien bitartez, autobus geltokietan bazkideak abor datuz edota ezusteko bisiten bitartez botoak eskatzen, aurreko asanblada batean legez.

LAB sindikatuaren ikastoletako sailak ondorengo idatzi zuen, beren idatzia manipulatu zutenei zuzenduta: “Sindikatu honen INFO baten ganean idatzitako hainbat gezur eta irainen aurrean (...) langileak entzuten al dituzue? Argi dago ezetz, ez baitakizue ezta zeintzuk diren euren arazo eta kezka”. Espero dezagun beren botoa beste bazkide bati emango dieten bazkideek **bertsio ofiziala eta langileen bertsioa e z agutu** ondoren egitea.

-Urtarrilaren 19a

Zuzendaritza Orokorrak langile guztiei dei egin zien, urtarrilaren 24an (11:00etatik 11:30etara) ospatuko zen “**informazio-biler a orokor** baterako”. Ohar bezala, “**zerbitzu minimoak** betetzeko neurriak hartuko dira, beti bezala”, gaineratu zuen.

-Urtarrilaren 20a

Langileek Ikastolen Elkarteko lehendakariari bidalitako **gutuna** argitaratu zuten. Langileek “**ez dutela eman** komunikabideetan atera den **informazioa**” adierazten dute; “**Iñaki Piñuel y Zabala** irakasle eta psikologoak egindako **txosten** bat” daukatela eta “salatzaileek pairatutako lan jazarpen psikologikoa” Piñuelek “buruturik o frog a objektiboen bitartez **ezin**

argiago” ikusten dela adierazten dute; eta “lan jazarpena hasi zenetik **ez dela egon** eragindako kaltea arindu zezakeen **neurri psikosozialik**” jakinarazi diote. “Edozein komunikatu egin baino lehen, salaketa jarri dutenen **informazioarekin egiaztatzeko**”, “**salaketa jarri dutenen bertsioaren** informazioa ere beste komunikatu baten bitartez emateko” eta “arrisku psikosozialei aurrea hartzeko **neurriak** har ditzaten eska” ditzala, “beste kasu batzuk ekidin ahal” izateko eskatu diote Ikastolen Elkartearen lehendakariari.

Bestetik, irakaslearen zati batek jasotzen dituen **formazio-ikastaroak** ospatu ziren. Irakasle horietako batzuek **ezin** izan zuten ikastaroetara **joan**, hori eginez gero bere ikasleak gelan irakasle gabe uztea eragingo zukeelako, **ordezko irakaslerik ez** zelako kontratatu ezta izendatu ere ez.

Bazkideek eskatuta, otsailaren 2ko **Ohiko Asanblada**ko gai ordenean bi puntu gehiago jarriko direla argitaratu zuen hedabideetan Kontseilu Errektoreak: “Egungo **Kontseilu Errektoreko** kideen **kargu-uztea**” eta “**Kontseilu Errektore berriaren** izendapena, beharrezkoa izanez gero”.

-Urtarrilaren 24a

“**Informazio bilera**” ospatu zen. Bileraren helburuetako bat “laneko osasunaren inguruko informazio ofiziala ematea” dela adierazten zuen gerenteak. “Salaketa jarri duten bi langileei beste 86 langilek erakutsitako babesak” **ez dela “elkartasun-ekintza** bat” adierazi zuen gerenteak, ahoz eta diapositiben laguntzaz. Bere adierazpen hori justifikatzeko “salaketari eman zaion **erabilera**” aipatu zuen gerenteak, El Correok argitaratutakoa gogora ekarriz, langileek El Correok argitaratutakoarekin inolako zerikusirik ez dutela adierazi zuten arren. Horrez gain, langileek “**lan-jazarpena zer den**” ote dakiten zalantzan jarri zuen gerenteak. Hori guztia urte bat baino gehiagoko zalantzen eta susmoen ondoren jazarpenari buruzko Europa mailako adituenetako baten aholkua bilatu duten eta mobbingaren inguruko ikastaroan egondako 100 langile ingururen aurrean. Hori guztia lan-jazarpen salaketa jarri duen langileetarikoa baten aurrean. Gerenteak ez zuen, baina, bilera informatiboan mikrofonotik eta pantailatik azaldutako bere **iritzi**en inguruko inolako galderarik edo iritzi desberdinik onartu, eta “**horrela da, eta horrela da**” irmoekin isilarazi zituen langileek ahotsak.

Bitartean, 20 minutu inguruko tartean, **ikasleak irakasle gabe** egon ziren beren geletan, Zuzendaritza Orokorrek ez zituelako “**zerbitzu minimoak** betetzeko neurriak” jarri, kontrako iragarri arren.

-Urtarrilaren 27

Kontseilu Errektoreak familiei zuzendutako **zirkularra** argitaratu du. “Guraso-bazkide” batzuek jasotako “izengabeko gutun” bati buruzko informazio aipatzen da zirkularrean, gutunean “Kontseilu Errektoreko zein zuzendaritzako kudeaketaren kontra zenbait salaketa egiten” dela adieraziz. “**Anonimoa** izatea” kritikatzeko du eta gutunarekin “**datuen babesari** buruzko lege organikoa hausten” ari direla adierazten du, baita “erantzukizunak argituko” direla ere. “Jendearekiko beti **zintzo** eta **errespetu** osoz jokatu” duela gogorarazten du Kontseilu Errektoreak.

Urtarrilaren 26an “NAHIKO DA!” izenburua daraman **idatzi anonimoa** zabaldu zen, zirkularrak

azaltzen dituen gertaerekin. Idatzi anonimo horretan oinarritu da Kontseilu Errektorea zirkularra argitaratzeko, hain zuzen ere.

Manipulazio-susmoak argitzeko langileek inkesten erantzunen **banakapena zuzendaritza orokorrari e-mailez** eskatu ziotenean **ez** zuten **erantzunik** merezi izan; guraso batzuek ikasleak irakasle gabe geratzeagatik arrazoi osoarekin kexatu zirenean langileek **zuzendaritza orokorrari** dena publikoki argi zezan **e-mailez** eskatu ziotenean **ez** zuten **erantzunik** merezi izan; ikasleak irakaslerik gabe uzteagatik kexuka joan ziren gurasoei Kontseilu Errektoreak emandako erantzuna (“Guk ezin dugu egin ezer. Irakasleak salatu behar dituzue”) argi zezan **zuzendaritza orokorrari** bidalitako e-mailek **ez** zuten **erantzunik** merezi izan.

Frogatu gabeko gertaera gaitzesgarriak salatzen dituen **komunikatu anonimo** batek ia **24 ordutan zirkularra** merezi izan du.

Azken gogoeta

Dagoeneko inork ezin du zalantzan jarri Larramendi Ikastolako langileek daukaten susmoa: ikastolan **lan-jazarpen delitu** bat ematen ari dela susma tzen dute.

Halaber, dagoeneko inork ezin du zalantzan jarri Kontseilu Errektorea, gerentea, Ikastolen Elkarteko lehendakaria, “Ere kezkatutakoak” eta bazkide batzuk asebeteko dituen irtenbide bakarra **langileek** lan-jazarpen susmoen aurr ean **ez ikusiarena egitea** dela.

Kontua da langileak eta bazkide batzuk ez daudela ez ikusiarena egiteko prest. 2015eko irailetik ez dute egin eta ez du ematen orain egingo dutenik ere.

Lan-jazarpen deliturik egin ez duen Kontseilu Errektoreak susmo horiek ezabatzeko neurriak hartu behar izango lituzke, eta Kontseiluak ez du inolako neurririk hartu. Lan-jazarpen deliturik egin ez duen Kontseilu Errektorea lasai egon beharko litzateke lan-jazarpen salaketa baten aurrean, susmoak desag ertzeko aukera izango lukeelako.

Delitua egin dela uste duen herritarrak ustezko biktimari lagundu behar dio eta delitua salatu behar du: “Bidegabekeria egoeretan **neutral** izatea erabakitzen baduzu, **zapaltzailearen** ondoan egotea erabaki duzu” (Desmond Tutu).

Ikastolaren **normalizazioa** lortuko bada, **egia** ezagutzeko **ikerketa** egin beharko da, **justizia** egiteko balizko biktimen **erreparazioa** egon beharko da, baita aldean **adiskidetzea** ere. Orduan eraikiko dugu ikastola **oinarri sendo** etan, **alkarregaz**.

ÚLTIMOS ACONTECIMIENTOS y REFLEXIONES

-15 de diciembre

La dirección general convoca a todos los trabajadores a una reunión que se va a celebrar el 20 de diciembre a las 18:00 en Olalde ar etoa (Mungia). El motivo es “dar a conocer la labor

realizada hasta el momento” en el proyecto Global 2020. Una vez más, una convocatoria dirigida a más de 100 trabajadores **sin apenas margen** para organizar la semana ni conciliar trabajo y familia. Una vez más, fruto de las **prisas**, quizás, la convocatoria contiene algún error y se envía otro mensaje para corregirlo: finalmente, el lugar de celebración es la ikastola.

-16 de diciembre

La dirección general envía a **todas las familias** el **documento** que resume la labor realizada hasta el momento en el proyecto Global 2020.

-20 de diciembre

La directora general y la consultoría contratada para realizar el análisis de la situación actual **presentan** ante aproximadamente **100 trabajadores** el **documento** que han enviado a todas las familias. En la primera diapositiva destaca el siguiente mensaje:

“Muchos trabajadores están *quemados*. Prevalecen las actitudes pasivas y los comportamientos agresivos por encima de lo habitual.”

En otra diapositiva se menciona como amenaza para la ikastola la siguiente:

“Resistencia ante los cambios.”

Quemados, pasivos y agresivos. Los trabajadores piden explicaciones porque no se sienten identificados en esos adjetivos. Tampoco entienden a qué cambios se han **resistido**.

Los consultores y la directora responden que se ha llegado a esas conclusiones a partir de las respuestas que los trabajadores dieron en las **encuestas**, e insisten en su **rigor científico**.

Los trabajadores piden que se les muestre el desglose de las respuestas que dieron en las encuestas (tal y como se realizó con las encuestas de los alumnos y con las de las familias) para entender cómo se ha podido llegar a la conclusión de que los trabajadores se resisten a los cambios y son agresivos, entre otras conclusiones. La directora y los consultores no muestran **ningún desglose** ni explicación al respecto. Tras la reunión, algunos trabajadores han pedido por escrito el desglose a la consultoría y a la directora, y a día de hoy no han recibido respuesta alguna.

Los consultores reconocen que la encuesta y sus respuestas pueden dar lugar a “**diferentes interpretaciones**”; reconocen pues, de algún modo, su escaso rigor científico.

Los consultores reconocen que cuando valoraron las encuestas no tuvieron en cuenta la actual **situación** de la **ikastola**, pese a que los trabajadores sí lo mencionasen en sus encuestas.

